

Euskarazko eredu orokor eta inklusiboa jaso dadila, belaunaldi berriak euskalduntzeko

- EAEko Hezkuntza Legeak euskararen inguruan jaso beharreko proposamen integrala aurkeztu dute euskalgintzak eta hezkuntzako eragile eta sindikatu nagusiek.
- Berdintasunaren eta kohesioaren bidean, Legeak ikasle guztiei euskalduntzeko eskubidea bermatzeko eskatu dute.
- Abenduan Jaurlaritzak aurkeztuko duen aurreproiektuaren arabera definituko dute ondorengo estrategia.

2022ko urriaren 10a

Irailean, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-lege aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztu zuen, eta datozen egunetan bukatuko da ekarpenak egiteko epea, behin betiko aurreproiektua Legebiltzarrera bidali aurretik.

Honen aurrean, 2021eko abenduan *Euskaraz Hezi Berdintasunean Hazi* adierazpena aurkeztu zuten toki berean aurkeztu dute EAEko Hezkuntza Legeari **egindako osoko ekarpena, euskararen inguruan** jaso beharreko artikuluen proposamen integrala. Bertan izan dira, Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiaz gain, hezkuntza-komunitateko eragile **EHIGE, Euskal Herriko Ikastolak, HEIZE** eta **Hik Hasiko** ordezkariak, bai eta euskal gehiengo sindikaleko **ELA, LAB** eta **STEILAS**eko ordezkariak ere.

Euskara ikas- eta irakas-hizkuntza duen hizkuntza-eredu orokortu inklusiboa

Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok aurkeztu du lege-proposamenaren edukia. Horrela, lehenik eta behin gogoan izan du, eragile guztiek kezka bera partekatzen dutela aurkeztutako lege-zirriborroaren inguruan: «behin eta berriro esaten ari gara lege berriak **argi zehaztu behar duela** zein izango den etorkizuneko hizkuntza-eredua Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza-sisteman. Hori ez da argi geratu aurkeztutako zirriborroan. Hortaz, horixe da gure proposamenak bete nahi duen lehen gabezia».

Izan ere, aurkeztutako proposamenak modu zehatzean jasotzen du etorkizuneko hezkuntza-sistemaren hizkuntza ereduak: *euskara, berezko hizkuntza, hezkuntza sisteman irakas- eta hizkuntza normalizatua izango da, eta jardueretan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izango da; are gehiago, hizkuntza-eredu orokor eta inklusiboa izango da eta ez ditu ikasleak banatuko hizkuntza-ofizialen arteko aukeraketaren arabera*. «Lege berriak **zehaztapen-maila altua** izan beharko du eraginkorra bada. Beharrezkoa da legeak argi eta garbi zehaztea zein den hurrengo hamarkadetan ezarriko den hizkuntza-eredua. Euskararen gaia **malgutasunez jokatuz gero**, etorkizuneko belaunaldien euskalduntzea **kaltetuko** da, eta hori ezin da onartu» azaldu du Bilbaok.

Arrazoi horrengatik, Kontseiluko eledunak euskarazko hizkuntza-eredu orokortuaren beharra justifikatu du: «Ikasle guztiek **euskara ezagutzeko eskubidea dute**, eta lege honek eskubide



hori bermatu behar du. Orain arte, datu guztiek erakusten duten bezala, euskarazko eredua izan da helburu hori lortzeko eredurik arrakastatsuena. Horregatik diogu, Legeak **euskarazko eredu orokortu eta inklusibo berri bat** jaso beharko lukeela, benetan nahi bada belaunaldi berriak **euskaldunak eta eleaniztunak** izatea, justiziaren, berdintasunaren eta kohesioaren bidean».

Horrekin batera, proposamen honetan, Jaurlaritzak aurkeztutako lege-zirriborroan bezala, hizkuntza-proiektuek garrantzi handia hartzen dute. Bilbaoren esanetan, «atal horretan ere jarrita dago **hizkuntza-proiektuek** hizkuntza-ereduari jarraitu behar diotela derrigorrez, eta euskararen ikaskuntza-prozesuan **ikastetxearen errealitateari egokitzeko** irizpideak izan beharko dituela, baina beti ere oinarri bati jarraiki: euskara gutxiago duenari euskara gehiago ematea. Ezin onar daiteke euskara gutxiago duena euskara gutxiagorekin konformatu behar izatea, bazterketa soziala bultzatzea». Atal horretan, bestalde, hizkuntza-proiektuak ebaluatu eta, beharrezkoa izanez gero, egokitu beharra jasotzen da. «Are gehiago, hizkuntza-proiektua egokitu ezean programa-kontraturik ez da sinatzerik izango», azpimarratu du.

Ekarpen integrala

Hizkuntza-ereduez eta hizkuntza-proiektuez gain beste hainbat elementu jaso ditu gaur aurkeztutako proposamenak. Lehenik eta behin, curriculumari, **euskal curriculumari** bereziki, erreferentzia zuzena egiten dio: «euskal dimentsioa eta dimentsio unibertsala barne biltzen dituen ikuspegia jaso beharko du, eta hainbat lanketa proposatzen ditugu horretarako».

Halaber, ikastetxeetako hizkuntza-jarduna ere arautzen du lege-proposamenak, ikastetxeak euskararen arnagune funtzional bihurtzeko, eta ikasleak euskaraz normaltasunez bizi daitezen.

Jarraian, Kontseiluko idazkari nagusiak lege-proposamenak jasotako atal guztiak zerrendatu ditu: irakaskuntzarako sarrera eta horniketa, ikastetxeetatik kanpoko eskaintza, ebaluazioa, euskararen beste lurraldeekiko lankidetzak, lanbide-heziketa, kirol- eta arte-ikaskuntzak... bai eta **hezkuntza-sistemaren helburuak eta ikasleen hizkuntza-eskubideak** ere. «Saiatu gara ekarpena integrala egiten, hau da, euskararen betaurrekoetatik, ikasleen hizkuntza-eskubideetatik, beharrezkoak diren elementu guztiak txertatzen» esan du.

Hurrengo urratsak

Azkenik, euskararen normalizazioaren aldeko gizarte eragile nagusiak batzen dituen Kontseiluko eledunak hurrengo urratsen berri eman du: «Lehenik eta behin, ekarpen gisa erregistratuko du Kontseiluak Eusko Jaurlaritzak zabalduen prozesuan. Ondoren, **alderdiei gure proposamenaren berri emango diegu**, bere egin eta haiek ere ekarpenetan jar ditzaten. Abenduan ikusi beharko dugu zer-nola jasotzen den zirriborroan, eta horren arabera **etorkizuneko estrategia** definituko dugu».

Amaitzeko, Bilbaok azpimarratu nahi izan du lege berrian euskararen gaia egoki jartzeak duen garrantzia. «**Hezkuntza-sistema da egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten berreskurapenerako zutabea**. Gurean, ikusi izan dugu zer-nolako ekarpen ikaragarria egin dion hezkuntza-sistemak euskalduntze-prozesuari, baina oraindik urrun gaude ezagutzaren unibertsalizaziotik, herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasuna izatetik. Hurrengo hamarkadetan indarrean izango den legeak bai ala bai bermatu behar du euskara ikas- eta irakas-hizkuntza izango duen eredu orokor eta inklusiboa abian jarriko dela. Ezin da aukera galdu. Ezin dugu aukera galtzen utzi» esan du.